LAN pentsioak

enpleguko BASE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

© Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa.
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
L.G.:

Joseba Azkarraga Rodero

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua

Gizartea zahartzen ari da. Eta horren aurrean, Administrazioak erronka horri heldu behar dio gaurtik hasita, baliabide egokiak jarriz etorkizunari arduraz heldu ahal izateko.

Jaurlaritzatik funtsezkotzat eta uko ezinezkotzat jotzen dugu pentsioen sistema publikoa mantentzea. Horrenbestez, gure erantzukizuna betez, alternatiba egokiak aurkitu behar ditugu, aurreikuspen guztien arabera sistema horrek aurre egin beharko dion presioa arintzeko.

Gaur egun, herrialde batzuek (Danimarka eta Holanda, esaterako) arrakastaz heldu diote zahartzearen erronkari, pentsioen sistema publikoa eta Aurreikuspen Sozial Osagarria uztartuz.

Europako Batzordeak oso positibotzat jo dituen estrategia horietatik Euskadiko Aurreikuspen Sozial Osagarriko Diagnostikoa eta Plana sortu dira, Aurreikuspen Sozial Osagarriaren mekanismoak erretiratuei errenta-maila egokia bermatzea ahalbide dezan, hain zuzen ere jardunean zeudenean jasotzen zutenaren pareko errenta-maila.

Gida honen bitartez, Plan hori nola antolatu den adierazten da, inor behartu gabe pentsio osagarriak orokortzeko, sektoreko edo enpresako enplegu-sistemen bitartez, gizarte-eragileek betiere sistema horien garapenaren protagonista aktibo izan behar dutela kontuan hartuta.

2019 2021

AURKIBIDEA

6 Aurreikuspen Soziala

7 Zer da Aurreikuspen Soziala?

8 Aurreikuspen Sozialeko Sistema

10 Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoaren gakoak

12 Aurreikuspen Osagarria beharrezkoa da

14 Enpleguko Aurreikuspen Sozial Osagarria: **LAN pentsioak- enpleguko BASE** erakundeak eta Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Socialeko Planak

15 Zer da Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Plana?

16 Zer dira Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planak?

17 Zer modalitate daude?

18 Nork susta ditzake?

19 Nor izan daiteke **LAN pentsioak- enpleguko BASE** erakundeetako bazkidea?

20 Nola diseinatzen da Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Plana?

20 Zer kontingentzia estaltzen dituzte Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planek?

21 Nola kudeatzen da Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Plana?

22 Zer abantaila ekartzen diete langileei Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko planek?

23 Zer abantaila ekartzen diete enplegu-emaileei?

24 Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Plana

25 Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Diagnostikoa eta Plana Euskadin

28 Pentsio Osagarriek garapen handia lortu dute Euskadin, **LAN pentsioak- enpleguko BASE** tresna propioari esker

28 Pentsio Osagarriak orokortu behar dira, gizartearen erronkari erantzun ahal izateko

29 Eszenategi berriak joko-arau berriak eskatzen ditu

30 Beharrezkoa da gizarte-eragileen parte-hartzea

31 Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planaren jardun-ardatzak

Aurreikuspen Soziala

Zer da Aurreikuspen Soziala?

Aurreikuspen Soziala instituzio modernoa da, gizarte tradizionalen ohiko praktika jakin bat ordezteko sortu dena. Ohiko praktika horren arabera, familia-ingurunearen —edo tribu-ingurunearen— erantzukizuna da jadanik produktiboak ez diren taldekideen premiei erantzutea.

Beste zenbait prestaziorekin batera —hala nola hezkuntza edo osasuna— Aurreikuspen Sozialak "Ongizate Estatua" deiturikoa sortu du, hain zuzen ere, aldagai batzuk gorabehera munduko bigarren gerraren amaierako Europan nagusitu den filosofia oso bat.

Funtsean, Aurreikuspen Soziala aseguramendu kolektiboko sistema da, ekimen pribatukoa edo publikokoa. Herritarrak bizi-arrisku nagusietatik babestea du helburu nagusitzat, eta horretarako prestazioak ematen ditu, kontingentzia batean daudenean —erretiro- eta baliaezintasun-egoerak bereziki— herritarrek beren premiak betetzeko eta beren erosahalmenari eusteko aukera izan dezaten.

Aurreikuspen Sozialeko Sistema

Kontingentzia gertatzen denean —hau da, erretiroaren, ezintasunaren edo heriotzaren kasuan—, herritarrak honako hiru zutabe hauetan oinarritzen dira beren erosahalmenari eusteko:

- **Lehenik eta behin, eta nagusiki, Gizarte Segurantza publiko banatzailea,** pentsioa eskuratzeko bermearen funtsezko oinarri gisa.
- **Bigarren zutabea Aurreikuspen Sozial Osagarria da, eta sektoreko edo enpresako enplegu-sistema kolektiboen bitartez eskaintzen da** Euskadin **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakundeen bitartez antolatzen da.
- **Hirugarren zutabea, sistema indibidualen bidezko Aurreikuspen Sozial Osagarria**, BASE indibidualen bitartez eskaintzen da Euskadin.

Gure ingurunean, Aurreikuspen Soziala sistema publikoaren —Gizarte Segurantzaren prestazioen— erantzukizuna da, eta beste bi zutabeak, BASE indibidualak eta enplegukoak, "Aurreikuspen Sozial Osagarritzat" jotzen dira.

Aurreikuspen Sozialeko sistema

1. ZUTABEA
Gizarte Segurantza

Aurreikuspen Sozialeko sistema publikoa eta nahitaezkoa. "Gizarte Segurantzaren pentsioa" deitzen diogu, eta Aurreikuspen Sozialaren funtsezko zutabea da.

2. ZUTABEA
LAN pentsioak-enpleguko BASE erakundeak

Enpleguko aurreikuspen-planak integratzen dituen erakundea. Sistema kolektiboa, pribatua eta borondatezkoa da, eta laneko, enpresako edo sektoreko jardueraren barnean kokatzen da, negoziazio kolektiboa oinarritzat hartuta. como base.

3. ZUTABEA
BASE indibidualak

Aurreikuspen-plan indibidualak integratzen dituzten erakundeak. Ekimen indibidualaren mendean daude, eta, ondorioz, pertsonen aurrezteko ahalmen partikularraren mendean.

NAHITAEZKO | OSAGARRIA

1. GAKOA:
bi prestazio kategoria

2. GAKOA:
banaketa-erregimena

3. GAKOA:
biztanleria aktiboaren eta biztanleria pasiboaren arteko oreka

Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoaren gakoak

Aurreikuspen-sistema publikoak prestazioak unibertsal bihurtzeko joera dauka. Horregatik, honako hauek bereizi behar dira:

1. gakoa: bi prestazio kategoria

- Kotizaziopekoak, erretiroarengatiko, baliaezintasunarengatiko eta heriotzarengatiko biziarteko pentsioak, eta bestelako prestazioak. Horien zenbatekoa, lan-bizitzan eginiko kotizazioen arabera ezartzen da.

- Kotizazio gabekoak. Hasiera batean, herritar egoiliar guztiei dagozkie, Gizarte Segurantzari kotizatu dutenei eta kotizatu ez dutenei, betiere premia-maila jakin batzuk egiaztatzen badituzte. Prestazio horiek gutxieneko gizarte-bermeak dira pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurrean.

2. gakoa: banaketa-erregimena

Gure Aurreikuspen Sozialeko sistema publikoa ulertzeko, banaketako finantza-erregimen baten arabera antolatzen dela hartu behar dugu kontuan: langile guztien —klase aktiboak— kotizazioak adinekoen —klase pasiboak— prestazioak ordaintzeko baliatzen dira une oro, adineko horiek bere garaian aurreko belaunaldien sostengu izan zirela aintzat hartuta.

Hortaz, belaunaldi arteko Elkartasuna da sistema honen bereizgarri nagusia.

3. gakoa: biztanleria aktiboaren eta biztanleria pasiboaren arteko oreka

Aurrekotik honako ondorio hau ateratzen da: sistemak behar bezala funtziona dezan, nolabaiteko oreka egon behar da ekarpenak egiten dituzten langileen kopuruaren eta prestazioak jasotzen dituzten pasiboen kopuruaren artean.

Bizi-itxaropenak gora egin du herrialde garatuetan, eta horrek biztanleria pasiboa nabarmen haztea ekarri du berekin. Horren ondorioz, orekari eustea oso zaila da, eta horrenbestez Aurreikuspen Sozialeko sistema publikoaren egonkortasuna zalantzan jarri da etorkizunari begira.

Immigrazioaren fenomenoarengatik ere, joera hori itzulgaitza da, klase aktiboen eta pasiboen arteko ratioaren bilakaerak erakusten duenez:



Aurreikuspen Osagarria beharrezkoa da

Bilakaera soziodemografikoak berekin dakartzan erronka horiei aurre egiteko, hainbat erreforma egin behar dira, eta, lehenik eta behin, Gizarte Segurantzaren sistema publikoak heldu behar die erreforma horiei. Autonomia Estatutuaren arabera, Euskadik bere gain hartu behar du Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoa, baina oraindik ere transferentzia ez da eskualdatu, Estatuak negoziazioari uko egiten diolako.

Nolanahi ere, Euskadik garrantzizko tresna bat du eskura: pentsio osagarriak. Horri esker, erretiroko bizi-mailaren galera-arriskua murritz daiteke, baita belaunaldi arteko desoreka-arriskua ere.

Izan ere, Euskadik pentsio osagarrien eredu propio bat arautu eta zehaztu ahal izateko eskumen guztiak dauzka, arauen, zergen eta administrazio- eta ekonomia-laguntzaren arloetan. 1983an Eusko Legebiltzarrak ateratako Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei (BASE) buruzko Legearen bitartez garatu da eredu hori.

BASE ezagunenak aurreikuspen-plan indibidualak eskaintzen dituztenak dira: erretirorako aurrezte-planak dira eta zerga-abantailak dituzte; partikularrek beren ekarpenak egiten dituzte, Gizarte Segurantzaren etorkizuneko erretiro-pentsioa osatzeko baliagarri.

BASE indibidualentzat, ordea, ezinezkoa da premia guztiei erantzutea. Pertsona guztiek ezin dute dirua aurreztu, eta beren errentaren zati bat babes-tresna horretara bideratu. Horregatik sortu dira enpleguko BASEak. Horien aurreikuspen-planak lan-harremanen eremuan sortu eta antolatu dira, negoziazio kolektiboan. Modalitate hori ez da oso ezaguna gurean, baina oso hedatua dago herrialde aurreratuetan, aurreikuspen sozialaren bigarren zutabea baita, pentsio publikoen atzetik.



Enpleguko Aurreikuspen Sozial Osagarria: Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeak eta Planak

Zer da Borondatzeko Aurreikuspen Sozialeko Plana?

Zenbait kontingentziatarako (erretiroa, heriotza, mendetasuna, baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larria) ekarpen eta prestazioen erregimena antolatu eta arautzen duten akordioak dira Aurreikuspen Planak. Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planak prestazio-arautegietan jasotzen dira, eta kapitalizazioko finantza- eta aktuario-sistemak aplikatzen dituzte prestazioak finantzatzeko.

Akordio edo aurreikuspen-plan horiek nortasun juridikoa duten BASEetan biltzen dira.

Zer dira Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planak?

Laneko edo enpleguko harreman batez loturik, enpresaren eta langilearen arteko negoziazio kolektibotik sortzen diren akordioak dira.

Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planek indibidualen ezaugarri berberak dituzte, eta, indibidualak bezala, gure aurreikuspen-sistemaren oinarria osatzen duten pentsio publikoen diru-sarrerak osatzera bideratzen dira, erretirotik aurrera bizi-kalitateari eusteko. Funtsezko aldea zera da, kasu honetan, enpresaren eta langileen arteko negoziazio kolektiboan sortzen direla, eta enpresak eta langileek egin ditzaketela ekarpenak. Nolanahi ere, negoziazioaren eta akordioaren emaitza dira betiere. Itunetik sortu dira eta hori da haien balio nagusia.

Zer modalitate daude?

Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko planetan oinarrizko bi modalitate bereizten dira, alderdiek adosturiko eskubide eta betebehar ekonomikoen erregimenari jarraiki.

- **Prestazio Definituko Aurreikuspen Planak**
  Erregimen publikoetan bezala, kontingentzia gertatzen den unean jaso beharreko prestazioen zenbatekoak osatzen du plan horien magnitude erabakigarria. Prestazioa soldataren eta kotizazio-urteen arabera kalkulatzen da normalean. **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakundeak bere gain hartzen du ekarpenak ezarritako betebeharrak ordaintzeko nahikoak ez izatearen arrazoia.

  Modalitate honek sustrai sakonagoak dauzka mundu anglosaxoian, bertako sistema pribatu osagarriek tradizio handiagoa dutelako eta gehiago hedatu direlako, azkenaldian horien ezarpenak murrizte aldera egin badu ere.

» PRESTAZIO DEFINITUA	Prestazioaren zenbatekoa jakina da
» EKARPEN DEFINITUA	Ekarpenaren zenbatekoa jakina da
» PLAN MIXTOAK	Ekarpena eta/edo prestazio jakinak dira

- **Ekarpen Definituko Aurreikuspen Planak**

Ekarpenen zenbatekoa zehazten da, eta ondorioz prestazioak kontingentzia gertatzean metaturiko kapitalaren araberakoak izango dira. Hortaz, bazkide bakoitzak bere gain hartzen du lorturiko prestazioa nahikoa ez izatearen arrazoia.

Gure ingurunean gehien ezarri den modalitatea da, eta nabarmen igo da azken urteetan.

Nork susta ditzake?

Soldatapekoak dituen edozein enpresak, erakundek, elkartek edo sektore-federaziok **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakunde bat sor dezake. Ekimen kolektibo negoziatua denez, gizarte-eragileek (sindikatuak, lanbide-elkarteak, enpresaburuak eta abar) horrelako ekimenen katalizatzaile gisa jarduten dute.

LAN pentsioak-enpleguko BASE erakunde baten eraketa negoziazio kolektiboaren barnean kokatzen da normalean, eta haren aurreikuspen-planak oso tresna baliagarriak dira aurreikusteko, aurrezteko eta ordainsari-formulak dibertsifikatzeko, nola enpresaburuentzat hala langileentzat

Nor izan daiteke **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakundeetako bazkidea?

Enpleguko Aurreikuspen Planek esparru kolektiboan antolaturiko borondatezko aurreikuspen sozialeko formula bat osatzen dute.

Izaera negoziatzaile horri jarraiki, alderdiek erabaki behar dituzte **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakundeetan txertatu beharreko aurreikuspen-planen ezaugarriak. Horrek esan nahi du langileak planera biltzerakoan ezinezkoa dela inolako diskriminaziorik ezartzea. Alderdien arteko negoziaziotik sortzen diren neurrian, Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planek alderdiak behartu egiten dituzte harturiko akordioak betetzera.

Nola diseinatzen da Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Plana?

Plana diseinatzerakoan zenbait faktore hartu behar dira kontuan, azkenean Aurreikuspen Planak bete ditzan enpresak eta langileek lortu nahi dituzten helburuak.

Horren haritik, alderdien espektatiba eta premiak aztertu eta bateratu behar dira, eta bi alderdiei ondoen egokitzen zaizkien konponbideak bilatu. Aurreikuspen osagarriko helburua ahaztu gabe, estali beharreko kontingentzien definizioarekin, kolektibo onuradunarekin, aurreikuspen-planaren finantziazio-erregimenarekin, ekarpen eta prestazioen zenbatekoarekin eta abar zerikusia duten kontuak hartu beharko dira aintzat.

Zer kontingentzia estaltzen dituzte Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planek?

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko plan batek Gizarte Segurantzako sistemen ohiko kontingentzia guztiak edo batzuk estal ditzake:

a) Erretiroa
b) Heriotza
c) Ezintasun iraunkorra
d) Iraupen luzeko langabezia
e) Gaixotasun larria

Baina babesa zabal dezake, eta bestelako kontingentziak estali, hala nola aldi baterako ezintasunak, osasun-laguntza, eta aurreikuspen sozialarekin zerikusia duten beste zenbait.

Nola kudeatzen da Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Plana?

Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Plana **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakunde batean biltzen da. Erakunde horrek ekarpenen diru-bilketa eta ondarearen inbertsioa kudeatuko ditu, ekarpen horiei bere etekinak metatuz, eta prestazioak ordainduko ditu behin kontingentziak gertatu ondoren.

LAN pentsioak-enpleguko BASE erakundeak bere bazkideen, langileen, interesen mesedetan jarduten du soilik, eta kautelazko oso arau zorrotzen eraginpean dago; horren ondorioz, segurtasun-maila bikaina eskaintzen du konpromisoen kudeaketari dagokionez.

Enpresak eta langileek ordezkaritza paritarioa dute gobernu-organoetan. Langileen premiak ezin hobeto ezagutzen dituzte organo horiek, eta hala, erantzun egokia eman dezakete prestazio eta zerbitzuen arloan, bi alderdien interesak errespetatuz.

Zer abantaila ekartzen diete langileei Enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko planek?

- **Osagarri bat pentsioarentzat**
  Soldatapekoentzat, **LAN pentsioak-enpleguko BASE** erakundeak aukera ezin hobea dira haien etorkizuneko erretiro-pentsioa osatzeko egungo bizi-kalitatea konprometitu gabe.

- **Ordainsari osagarriko formula bat**
  Beste abantaila sozialekin edo emaitzetan parte hartzeko beste zenbait abantailarekin batera, ordainsari-formula alternatiboa osatzen dute, eta negoziazio-elementu malgu gisa bil daiteke hitzarmenetan.

- **Zerga-abantaila bat**
  Oso zerga-tratamendu ona dute, eta, horri esker, langilearen eta enpresaren ekarpenen zenbatekoak bereizita ken daitezke PFEZaren zerga-oinarritik (gehienez 8.000 euro kasu bakoitzean).



Zer abantaila ekartzen diete enplegu-emaileei?

- **Leialtze-formula bat**
  Gainera, enpleguko borondatezko aurreikuspen sozialeko planek langileak leial bihurtzeko eta pizgarriak ezartzeko formula indartsua osatzen dute.

- **Elkarrizketa sozialeko elementu positibo bat**
  Aurreikuspen Sozial Osagarria enpresaratzeak elkarrizketa soziala eta ordainsari-alternatiba dakartza berekin, eta soldata-negoziazioa malgutzeko aukera ematen du.

- **Abantaila soziala eta zerga-abantaila**
  Zerga-arloan, enpresa-ekarpenak gastu gisa kentzen dira Sozietateen Zergaren zerga-oinarritik, eta ekarpenek —gehienez 8.000 euro langile bakoitzeko— % 10eko kenkaria dute kuota likidoan.



Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Plana

Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Diagnostikoa eta Plana Euskadin

Eremu orokorra

Eusko Jaurlaritzak, egungo eta etorkizuneko egoeraz jabeturik, hausnarketa estrategikoa abiarazi zuen Euskadiko pentsioen diagnostikoaren eta perspektiben inguruan, eta, horren ondorioz, Euskadiko Aurreikuspen Sozial Osagarriko Plana onartu zuen, 2006ko urtarrilaren 10ean.

Plan hori funtsezko bi zutaberen gainean eraiki da: batetik, aurreikuspen sozial osagarria testuinguru demografikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren bilakaeratik eratorritako erronka berrietara ahalik eta ondoen egokitu nahi da, eta, bestetik, aurreikuspen-sistema kolektiboak indartu nahi dira, enplegu-sistemak bereziki, gizarte osoaren premiei erantzuteko tresna diren aldetik.

Bilakaera demografikoa Euskadin

Baldintza demografikoei dagokienez, Europako testuinguru orokor berean dago Euskadi, eta gero eta desoreka demografiko handiagoa izango du. Izan ere, honako hiru faktore hauek bateratzen dira EAEn: Europako ugalkortasun-indizerik txikienetakoa dugu, bertako bizi-itxaropena oso handia da, eta immigrazio-tasa, berriz, txikia.

Etorkizunean erretiroa hartuko duten belaunaldiak ugariagoak dira proportzionalki, eta horri eransten badiogu belaunaldi horiek kotizazio-oinarri handiagoak dituztela, zahartzeak askoz ere inpaktu handiagoa izan dezakeela ondorioztatzen da.

Etorkizuna hain epe luzera aurreikustea arriskutsua bada ere, eszenategi demografiko guztiek euskal biztanleriaren adin-egituraren ezinbesteko aldaketa erakusten dute. Izan ere, 1995ean 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %15 ziren; 2025. urtean, ordea, ehuneko hori %25 inguru izango da, eta 2050ean %35etik gora izango dela uste da.



Zahartzeak presio handia eragiten du finantza publikoen gainean

Datu bat nahikoa izan daiteke pentsioen sistema publikoak eutsi beharko dion goranzko presioaren berri emateko: 2025ean, Euskal Autonomia Erkidegoan erretiro-adinean egongo diren pertsonen ehunekoa gaur egungoa baino %30 handiagoa izango da.

Bestetik, bizi-itxaropenaren gorakadak, berez fenomeno mesedegarria eta gogokoa bada ere gizakien bizitza luzatzea dakarrelako, jarduerarik ezaren urte gehiago finantzatu beharra eragiten du aldi berean. Beraz, biztanle gehiagori ordaindu beharko zaie, eta urte gehiagoz.

Aurreikusten diren eszenategien arabera, Gizarte Segurantzak Euskadin kotizaziopeko pentsioetan eginiko gastua egungo %8,5etik BPGaren %9-17ra iritsiko da 2050. urtean, egungo sistema aldatu ezean. Aurreikuspen horiek prospektiba-ariketak dira eta halakotzat jo behar dira. Hortaz, beharrezkoak badira ere, zuhurtziaz jokatzea komeni da, ezin pentsatu dezakegulako hain epe luze batean instituzio-erreforma eta gizarte-aldaketa sakonik gertatuko ez denik. Era berean, orain 40 urte inork gutxik imajina zitzakeen egungo euskal gizartera edo Gizarte Segurantzaren sistemara iristeko gertatu eta egin behar izan diren aldaketak.

Pentsio Osagarriek garapen handia lortu dute Euskadin, BASEen tresna propioari esker

euskal BPGaren % 25

1983ko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei (BASE) buruzko Legeak eta Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei (BASE) buruzko Legearen Arautegiaren gaineko 87/1984 Dekretuak ezarritako esparruan, aurreikuspen sozial osagarriak garapen egokia izan du Euskadin, BASEen ondarea euskal BPGaren % 25aren inguruan kokatzen baita.

Pentsio Osagarriak orokortu behar dira, gizartearen erronkari erantzun ahal izateko

Alabaina, pentsio osagarriak Euskadin nola garatu diren aztertzerakoan, zera egiaztatzen dugu, aurreikuspen sozialaren hirugarren zutabea den eta bereziki Finantza Erakundeei lotzen zaien aurreikuspen indibiduala dela bereziki garatu dena.

Oro har, aurreikuspen indibidualak ahalbidetu du hainbat pertsonak Gizarte Segurantzak estali gabeko soldata zatia estaltzea. Halaber, biztanleriaren beste segmentu batzuen epe luzerako aurrezteak bildu ditu.

Haatik, aurreikuspen indibidualeko eredu horren ezaugarriak aztertzerakoan, gabezia handiak ageri dira errenta ertainak eta ertain-txikiak dituzten pertsonen estaldurari dagokionez, baita ekarpenen nahikotasunari, eraginkortasunari eta jarraitutasunari dagokienez ere.

Aurreikuspen Sozial Osagarriak euskal biztanleriak lorturiko ongizate-mailari eusteko ahaleginean laguntzeko aukera izan dezan, politika aplikatuaren ikuspegi berri bat sortu behar da, oraingo erronka errenta ertainak eta ertain-txikiak dituzten biztanle kolektiboak erakartzea eta biltzea baita. Hain zuzen ere kolektibo horiek dira gaur egungo kezka-iturburu nagusia: gaur egun pentsio osagarririk ez duten eta aldi berean pentsioen premia handiena izan dezaketen pertsonak.

Azken batean, Aurreikuspen Sozial Osagarria orokortu beharra dagoela esan nahi dugu, beste dimentsio bat, orain artean izan duena baino norainoko handiagoa eman behar zaiola alegia.

Eszenategi berriak joko-arau berriak eskatzen ditu

Aurreikuspen Sozial Osagarriaren helburu-aldaketa horrek arau-esparrua gizarte- eta ekonomia-baldintza berrietara egokitzea eskatzen du, tresna gizarte-erronka berriarentzat baliagarri izan dadin lortzeko.

Orain 20 urte Euskadiko aurreikuspen sozial osagarriaren eremuan ezarritako arauak gaur egungoarekin inolako zerikusirik ez zuen testuinguru batean sortu ziren. Gaur egungo errealitatea oso desberdina da: kontua da herritarren gehiengo zabalaren bizi-mailaren galera-arriskua prebenitzea, sistema osagarriari modu aktiboan ekarpenik egiten ez duten gizarte-taldeei dagokienez bereziki.

Aurreikuspen Sozial Osagarria orokortu ahal izateko, hau da, langileen gehiengo zabala hartara bildu ahal izateko, enplegu-sistemak baliatu beharko dira ezinbestean (bigarren zutabea), eta negoziazio kolektiboak eragile gisa jardun beharko du prozesu horretan.

Enplegu-sistemak ez dira behar bezala sustatu, eta, horregatik, ez dira behar bezala garatu. Gabezia hori gainditzeko, arau-esparru berria sortu behar da, aurreikuspen sozialeko modalitate hori sustatzeko eta alderdientzat (enpresaburu eta langileentzat) erakargarri bihurtzeko, eta modalitate horri lehentasunezko tratua emateko, gizartean betetzen duen eginkizunarekin eta gutxieneko betekizun estandarrak betetzearekin bat etorriz.

Helburua (Aurreikuspen Sozial Osagarria orokortzea) eta tresna (BASEak eta enpleguko aurreikuspen-planak) lerrokatzera bideratutako planteamendu koherente batek jardun-esparruaren birdefinizioa eskatzen du.

2006 URTEA	LAN PENTSIOAK - ENPLEGUKO BASE ERAKUNDEETAKO BAZKIDEAK			LAN PENTSIOAK - ENPLEGUKO BASE ERAKUNDEETAKO BAZKIDEEN % BIZTANERIA LANDUNAREN ALDEAN
	Sektore pribatua	Sektore publikoa	GUZTIRA	
ARABA	13.419	16.228	**29.647**	% 21
GIPUZKOA	211.253	29.132	**240.385**	% 75
BIZKAIA	38.677	51.080	**89.757**	% 18
TOTAL	263.349	96.441	**359.790**	% 38

Beharrezkoa da gizarte-eragileen parte-hartzea

Planaren helburu kuantitatiboa honako hau lortzea da: 8 urteko epean, lan-errenta jasotzen dutenen eta profesionalen %70 biltzea sistema osagarrira.

Pentsio osagarriaren garrantziari, hau da, pentsioaren estaldura-mailari dagokionez, Jaurlaritzak kalkulatu du aurreikuspen osagarriak azken soldaten %20 estali behar duela etorkizunean. Hartara, euskal gizartearen lan-errenten ordezkapen-tasa errenta lehengo bizi mailari eusteko modukoa izango da, errenta horiek jasotzeari uzten zaionean.

Dena den, gizarte-eragileak dira helburu horiek lortu ahal izateko benetako protagonistak. Gizarte-eragileek funtsezko eginkizuna betetzen dute sistema osagarria lortzerakoan. Gizarte Segurantzarekin batera, sistema horrek pentsio nahikoak, finantza-arloan iraunkorrak, bermatu behar ditu etorkizunean herritar guztientzat, eta hori guztia premia pertsonalei eta aldatzen ari den gizarte baten premiei erantzunez.

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planaren jardun-ardatzak

BASEak eta enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planak orokortzeko estrategia honako funtsezko jardun-ardatz hauen gainean antolatu da:

1.-Plan berriak, eta sektoreko eta enpresako LAN pentsioak-enpleguko BASE erakunde berriak ezar daitezen sustatzea, gizartean duten eginkizuna (helburuak, bete beharreko baldintzak) indartuz, haientzako

arau-esparru espezifikoa ezarriz, eta enplegu-sistema horien garapena erakargarri bihurtzeko laguntzak zehaztuz, zergen, administrazioaren eta ekonomiaren arloetan. Hori bai, bete beharreko betekizun eta eskubideei dagokienez zorrotz jokatuz (bazkideen kolektiboa, kontingentziak, ordaintzeko moduak eta abar).

2.-Sektoreko zein enpresako enpleguko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Planekiko konfiantza sortzea. Batetik, gardentasuna bermatuz, sistema erraz, eraginkor eta ulergarrien bitartez. Sistema horien kudeaketan profesionalizazio- eta prestakuntza-maila egokia ziurtatu behar da, baita gutxieneko berme-sistema ere. Eta, bestetik, plan horien eraginkortasuna zainduz. Horretarako, Inbertsio Printzipioen Deklarazioa ezarri behar da, kudeaketa-kostuak arautu behar dira eta Gobernu Batzordeen oinarrizko zereginak zehaztu behar dira, gobernu on baten kodea garatzea barne.

3.-Euskadiko Aurreikuspen Sozial Osagarriko sistemaren jarraipena bermatzea. Horretarako, kontrolerako eta monitorizaziorako tresna tekniko iraunkorra (Aurreikuspen Sozialaren Behatokia) eta erakunde- eta gizarte-ordezkaritzako tresna (Aurreikuspen Sozialaren Euskal Kontseilua) ezarri behar dira.

4.-Hirugarren zutabearen eraginkortasuna eta egokitzapena handitzea, aurreikuspen-plan indibidualek herritarren premia indibidualak bidera ditzaten ahalbidetuz, herritarren lehentasunen arabera, eta plan horiek sistema malguak, gardenak, pedagogikoak eta profesionalak izan daitezen bermatuz.

- Planaren finantziazioa.

Laguntzei dagokienez, Planak baliabide publikoen 42 milioiko esleipena aurreikusi du 2012ra arte, eta ezarpenerako diru-laguntzak nabarmentzen dira, partida horren %70 baitira, gutxi gorabehera. Prestakuntzak eta gizarte-eragileekiko lankidetzak osatzen dute bigarren partida.